



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
198.zkia . 2007ko maiatza

SAN ISIDRO, NEKAZARIEN EGUNA



4-10. Herrian barrena

24. Bordari eta Satarka

12-13. Elkarrizketa: Gloria Mintxero

27. Gazte Informazio Bulegoa

16-17. Herri Kanta

30-31. Apirileko demografia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI


TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Hawaii

Errebellin kalea 3 behe

20280 HONDARRIBIA

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97



Kattalin Noblia
Euskara Zinegotzia

Lau urteko ibilaldia Euskararen Zerbitzuan



Euskara Zerbitzuko buru bezala, 4 urteko bide hau bukatzen da. Oso aberasgarria izan dela dudarik ez, bai udaletxeko langile eta zinegotziekin elkar-lan interesgarriarengatik eta bai herrian euskararen sustapenerako dagoen erronka handiarengatik.

Herrian Administrazioetik Euskara bultzatzeko izan ohi ditugun asmo guztiak betetzeko baliabideak beti eskasegi geratzen direnez -aurrekontuak nahitaez mugatuak izaten baitira-, ahal diren aukera egokienak egiten saiatu gara, hiru oinarritzko alorretan (transmisioa, kalitatea, erabilera).

Bide horretan egin diren ahalegin ugarien artean hauek aipatu nahi nituzke : Euskara Bizi Berritze Planean sartzea eta horrekin kirol guneetan euskararen erabile-

ra bultzatzea, bi liburu argitaratzea (L.Zubeldiaren "Nire sukaldetxoa" edo "Hondarribiko Euskara", T.Sagarzazurena), herriko hainbat euskaltzaleri omenaldi xumeak egitea (Martin Ugalde, Joan San Martin, Maltzeta), euskal kantu herrikoia bultzatzea (Kalean Kantuz) eta azkenik, HONDARRIBIA aldizkaria pixka bat berrituratzea eta indartzea.

Badakigu Euskararen etorkizuna bermatzeko hartzen diren neurriak derrigorrezkoak direla eta agian gehiago izan beharko luketela, baina herritarren laguntza beharrezkoa da benetan eraginkorrak bihurtzeko.

Bide hau ilusio handiz egina izan da, eta milesker guztiei. Oraindik lan asko geratzen zaigu eta txanda hartuko duenari zorte on opa nahi diot.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Ana Lupe Iridoy

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK MAIATZEAN ETA EKAINEAN

- 27- Sagrario Fiz Sokoa Merkatalgunea943 644316
- 3- Almajano Mendelu, 26943 640068
- 10- Alameda Harresilanda, 9943 645798
- 17- Erauskin San Pedro, 22943 641018
- 24- Mayi Martinez Almirante Alonso kalea, z/g 943 642191

TXANDAKO OKINDEGIAK MAIATZEAN ETA EKAINEAN

- 27- Martinez Kale Nagusia, 17943 641212
- 3- Arratibel Mendelu auzoan943 641975
- 10- Garmendia Portuan943 641136
- 17- Martinez Kale Nagusia, 17943 641212
- 24- Arratibel Mendelu auzoan943 641975

550.500 kilo beira jaso ziren 2006an Hondarribian

Txingudiko Zerbitzuak eta Ecovidrio-k Hondarribia eta Irunen egiten duten beira jasoketa lanek bere fruituak eman dituzte. Iaz, orotara 2.175.150 kilo jaso ziren, horietatik %93 iglu erako kontenedoreetan eta %7 atez ate egindako jasoketetan. Azken modalitate honetan sartzen da Hondarribia, gehienbat bere Alde Zaharra, kaleen egiturek hala eskatzen baitute.

Hondarribian atez ateko jasoketa 2002. urtean hasi zen. 2005eko udan zerbitzu hau Alde Zaharrera zabaldu zen eta orduz geroztik jasotako beira kopuruak gora egin du. Txingudiko Zerbitzuetatik bidali zaizkigun datuak aztertuta, urtero Bidasoa Bailarako biztanle bakoitzak 28 beira kilo bidaltzen ditu zaborrera.

URTEA	IRUN	HONDARRIBIA	ATEZ ATE	DENET Kg
1.994	327.991	0		327.991
1.995	410.187	0		410.187
1.996	532.020	0		532.020
1.997	604.242	69.232		673.474
1.998	650.925	334.888		985.813
1.999	674.221	366.895		1.041.116
2.000	859.708	513.206		1.372.914
2.001	922.455	517.589		1.440.044
2.002	1.080.182	475.588	52.300	1.608.070
2.003	1.142.307	578.588	117.920	1.838.815
2.004	1.200.310	663.742	112.220	1.976.272
2.005	1.383.350	609.405	121.560	2.114.315
2.006	1.426.135	550.815	198.200	2.175.150

Iturria: Txingudiko Zerbitzuak

Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko anaitasun ekintzak burutu dira



Meakako Adixkideak dantza taldea ekitaldiaren une batean

Pasa den maiatzaren 6an ospatu zen San Telmoko muinoan beste urte betez Antso III. Haundiaren omenezko ekitaldia, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko anaitasun ekintzaren edizio berri bat. Foro Irun XXI elkarteak eta Hondarribiako Udalak antolaturik, herritar ugari parte hartu zuen ekitaldietan.

Goizeko 11:30etan egin zen irteera Higer itsasargiko aparkalekutik, eta eguerdiko 12:00etan hasi zen ekitaldia San Telmoko muinoan. Iñaki Sagredo historialariaren hitzak entzun ondoren, Mekako Adixkideak Dantza Taldearen emanaldia ikusi ahal izan zuten bertaratutakoek. Ondoren, senitarteko bazkaria ospatu zen Batzokiko jatetxean.

Aurten, "memoria historikoaren garrantzia aldarrikatzeaz aparte (Antso III Haundia) euskaldun guztien nafartasuna aldarrikatu nahi izan dugu" esan zuen Xabier Olaizola, antolatzaileetako batek. "Horregatik eta iazko leloa hartuta 'Nafarroa Osoa' euskaldun edo nafar guztien batasuna aldarrikatu nahi dugu. Euskaldun guztiak nafartarrak garelako eta nafartar guztiak esukaldunak garelako".

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Bidasoa bailara Cordoban aurkeztu da

Bidasoa Turismo, eta beronekin batera Hondarribiko Udala, Andaluziako Cordoban izan dira turismo ekitaldi batean. Xabier Gezala, Udal Turismo zinegotzia, eta Cristina Gutierrez, Bidasoa Turismoko zuzendaria, izan dira ordezkariak, Zarautz, Bilbo, Donostia eta Gasteizeko kideekin batera.

Euskal ordezkariak Juan Bautista Mendizabalek eraman du, Eusko Jaurlaritzako Turismo zuzendariak. Cordoban-ko hotel garrantzitsu batean euskal gastronomiaren hainbat produktu dastatu ahal izan dira.

Xabier Gezala zinegotziak "Hondarribiak eta Bidasoa bailarak xarma berezia" duela esan zuen eta "bisita egiteko gonbitea" luzatu zuen era berean.

Egun hauetan Cordoban egindako bisitan, turismo arloko informazioa eskaini duen karpa bat ipini da, eta Bidasoa Turismotik esan zaigunez "asko izan dira bisitariak, eta horrek gure bailarak ikusmina sortzen duela esaten digu. Datozen asteotan azoka askotara eramango dugu gure izena, azken urteotako datu onekin aurrera jarraitzeko asmoarekin".



Xabier Gezala izan zen Udalaren ordezkaria Cordoban

Wi-Fi sistema abian da udal liburutegian

Wi-Fi zerbitzua abian jarri da Hondarribiko udal liburutegian. Zerbitzu honek hari gabeko konexioa bideratzen du ondoko gailu mugikorren bidez (eskuko ordenagailua, norberaren agenda digitala (PDA), 3. belaunaldiko telefono mugikorra, MAC esku-koa ...). Zerbitzu hau dohainik da eta horretarako erabiltzaileak bere tresna ekarri beharko du. Saioak ordu betekoak dira. Zerbitzua irakurketa-areto guztietan eskaintzen da. Sistema oso erraza da, sarrera pantailean erregistratzea nahikoa da.



Liburutegiaren irudi bat



Sortu zenetik Borja Jauregi Bidasoa-Txingudi Mugazgaidiko Partzuergoko zuzendaritza batzordeko kide izan da. Pasa den maiatzaren 9an bere azken bilkuran izan zen, Hondarribiko Alkate izateari utzi egingo baitio. Horrekin batera, Partzuergoko Batzordetik at geratuko da.

moda

a-dos

Calle Zuloaga, 14
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
Tel: 943 11 19 69

ZABALA

San Pedro Kalea 8

Hondarribia

Tfn. 943 642736

110.000 euro ordainduko dira Donostiako autobusa- ren defizita murrizteko

Gipuzkoako Foru Aldundiak 110.000 euro bideratu ditu Hondarribia eta Donostia lotzen dituen autobus zerbitzua kudeatzen duen enpresarentzat. Pasatako martxoaren 1ean hasi zen Hondarribitik irteten den autobusa aireportuan geratzen eta zuzenean Donostira joaten. Orduz geroztik, martxoko eta apirilko datuak kontuan hartuta, 3.119 bidaiari eraman ditu.



*Donostira doan autobusa-
ren irudi bat*

Zerbitzua sortu zenetik enpresak dirua galdu du eta ondorioz, Foru Aldundiak defizitaren %80 ordainduko du eta Autobuses Urbanos S.A. enpresak gainontzeko %20a, hau da, 27.500 euro bere gain hartuko ditu.

Ordutegiari dagokionez, astelehenetik ostiralera honako hau da. Lehena goizeko 7.15etan irteten da eta orduro bat dago: 8.15, 9.15, 10.30, 11.30, 12.30, 13.40, 14.40, 15.40, 17.40, 18.40 eta 19.50. Itzulerakoa, Donostiatik lehena 7.45etan irteten da eta azkena 20.20ean.

Larunbatetan, Hondarribitik lehena 7.15etan irteten da eta orduro bat dago 10.30etan izan ezik, bertan behera geratzen baita beste bat gehitzeko 20.20an. Gaueko 21.20an azkena irteten da Donostiatik.

Igande eta jaiegunetan, Hondarribitik irteten lehena 10.30etakoa izango da. Orduro bat dago da, 15.30etan ezik, beste bat dagoelarik gaueko 20.50ean. Hiriburutik, azkena 21.20ean ateratzen da.

Hondarribiko Pilota Olinpia- da ekainaren 9an izango da



*Iñaki Otxandorena pilotaria eskolako hurrekin izan da
duela gutxi*

Aurreko egunetan maiatzak 26an izango zela argitaratu bazen ere, azkenik zenbait arazo konpondu ondoren ekainak 9an ekingo diogu aurtengo Pilota Olinpiadari.

"Bertan Hondarribiko eskola adineko neska mutil guztiek euskal pilotaren inguruko ekintza ugari izango dituzte gozatzeko" esan du Iñigo Salaberria, Pilota Eskolako presidentek. "Iazkoaren bidetik aurrean ere zenbait tarte eta txoko antolatuko ditugu non, bakoitzak bere mailakoeekin esku pilotako zein paletazko partidatxoak jokatuko ditu".

Parte-hartze ekintza bat denez, ez da inolako txapelketa antolatzen, denok denon aurka jolasten dute. Ekintza gehigarrien arloan aipatzekoa, egun horretan aukera paregabea izango dutela herritarrek Jostaldik azkenaldi honetan jasan duen birgaitze prozesuaren emaitza ikusteko.

Bestalde, Hondarribiko Pilota Eskolaren barruan jorratzen diren modalitateen erakustaldiak ere ikusi eta gozatzeko aukera izango dute. Klubeko jokalariek Paleta Goman, Esku Pilotan, Laxoan... eta abarretan arituko dira.

Bukaeran parte hartu duten guziei kamiseta oroigarri bat banatuko zaie eta hamaiketakoa ere bai. Horietaz gain sari-keta bat ere egongo da zenbait laguntzailek eskainitako hainbat oparirekin. "Gutxi gora behera 300 neska-mutilek parte hartzea espero da Hondarribia Pilota Eskolatik. Ekitaldia amaitzerakoan, oroigarri banaketa, hamaiketakoa eta opari sari-keta burutuko da" amaitu zuen Salaberriak.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?
NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO
20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK
BAKARRIK
3,58.-euro
foto FRANAN
Zuloaga,4
Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE

ERRETERIA
 Larzabal 14 • 943 34 01 82
DONOSTIA
 Zabaleta 54 • 943 28 65 72
HONDARRIBIA
 J. Alonso 7 • 943 64 27 77
 Mendelu 17 • 943 64 70 58

Eva Forest idazle eta argitaratzailea hil da

Alfonso Sastreren emaztea, sortzez katalana izan arren, Hondarribian bizi zen aspalditik

Bartzelonan jaio zen Foresta familia anarkista batean, eta ume-tako giro hark, Espainiako Gerrak eta frankismoak goitik beherainoko arrastoa utzi dute haren bizitzan. Idazle eta argitaratzaile gisa ere, injustizien kontrako eta giza eskubideen aldeko konpromisoa izan dira Foresten lanaren ardatzak.



Alfonso Sastre eta Eva Forest

Foresten gurasoen iduriko errepresio tresna zen eskola, eta, ondorioz, ez zuten eskolatu. Espainiako Gerra hasi eta segituan hil zioten aita, eta Sobiet Batasunera erbesteratzear zutela azken unean atera zuen amak itsasontzira zeraman kamioitik. 1947an itzuli ziren Bartzelonara, eta orduan eskolatu zen aurreneko aldiz. Handik urtebetera hasi zituen medikuntza ikasketak Madrilen, eta psikiatriaren arloa landu zuen bereziki.

Baina medikuntzak ez zuen ase Forestek besteei laguntzeko eta gizartea aldatzeko zuen grina, eta idaztera eta argitaratzera bideratu zuen bere ahalegina. Erbesteratzeko beharrak, bidaiatzeko senak eta egoerak bertatik bertara ezagutzeko gogoak hara eta hona eraman zuten, eta, besteak beste, Frantzia, Suedia, Sobiet Batasun eta Kuban ibili zen.

1990ean jarri zuen abian proiektu maiteenetako bat Hiru argitaletxea, sakeleko liburuen bidez argitaletxe handien merkatutik eta indarrean den pentsamendutik kanpoko idazleen lanak ezagutzera emateko. Besteak beste, Dario Fo, Noam Chomsky eta Harold Pinterren lanak eman ditu, Sastrerenez gain.

Bixen Muñoz sukaldaria Gipuzkoako txapeldunordea

Bixen Muñoz, Gran Sol jatetxeko sukaldaria, duela aste gutxi Donostian ospatutako Gipuzkoako Pintxo Lehiaketan txapeldunordea bilakatu da. Azken urteotan sukaldari hondarribiarrak hainbat sari jaso ditu pintxo txapelketa desberdinetan. Hiru alditan geratu da txapeldunordea eta beste lautan bere produktuen originaltasunagatik saritua izan da.

Muñoz ez zen Hondarribitik txapelketara joan zen sukaldari bakarra. Julio Rebolleda, Txantxangorri tabernako sukaldaria ere bertan izan zen, eta finaleko atarian geratu zen.

Bi sukaldari hondarribarrek esan zuten, "oso maila altua egon da aurtengo edizioan. Datorrenean hala izango da eta han egongo gara berriz".

Gipuzkoako txapeldunak Donostiako Zurriola Maritimo tabernako José Luis García eta Iñaki Rodrigo izan ziren.



Bixen Muñoz bere lankide batekin saria erakusten



**BAR
HONDARRIBI**

**AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN**

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

San Jose-Gurutzearen Alaben ikastetxea Zilarrezko-Q saria jaso du



Mari Carmen Gezala, ikastetxeko zuzendaria

San Jose-Gurutzearen Alabak ikastetxeak "Zilarrezko Q - Q de Plata" izeneko ezagupena jaso berri du. Maiatzaren 18an ikastetxean bertan egindako ekitaldian, areto nagusia goraino bete zen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuordea, Udaletxeko ordezkari, ikastetxeko irakasle, ikasle eta ikasle izandakoak bertan izan baitziren.

Jose Manuel Susperregi Euskal Herriko Unibertsitateko Informazio Zientzietako fakultateko egungo irakasle eta dekanok izan zuten ekitaldia. Urte askotan San Jose-Gurutzearen Alabak ikastetxeak egindako lana goraipatu ondoren, Hezkuntza Sailburuordeak ikastetxea eredu bat dela esan zuen, eta Mari Carmen Gezala zuzendariari eman zion saria.

Gezalaren hitzetan, "ohore handia da guretzat sari hau jasotzea. Inguruneko beharrei erantzuna ematen dien Hezkuntza elkarteak izaten jarraitu nahi dugu; irakasleek, zaintzaileek, zerbitzuko langileek... osatutako lan-taldeak gauzatutako hezkuntza-lanaren kalitateagatik ezagututakoa; pertsona giza-balore eta balore kristauetan hezikotua; ikasleak lanerako, gizarterako eta gizaki gisa trebatutako dituenak".

"Horretarako", jarraitu zuen Gezalak, "zenbait baloretan oinarritzen gara. Talde lana, elkartasunezko konpromisoa behartsuenekin, ingurugiroarekin eta inguruneko kulturarekin, begirunea Hezkuntza Elkarteko kide guztiekin, onarpena, barkamena, bakea eta tolerantzia aplikatuz, norberaren koherentzia idearioarekin eta hezkuntza norabidearekin, eta azkenik, apaltasuna bizitzeko modu apala bultzatzen baitugu kontsumismoaren aurrean, boterearen aurrean, harreman sinpleen bidez".



Ekitaldian parte hartu zutenen irudi bat



Ikastetxeko areto nagusia topetaraino bete zen

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

1499 eta 1520 bitarteko aktak transkribatuko dira

Udalak eta Eusko Ikaskuntzak sinatutako akordio baten ondorioz burutuko da proiektua

Maiatzaren erdialdera, Hondarribiko Udal Artxibategiko funts historikoko 1499 eta 1520 urteen arteko dokumentazioaren transkripzio lana burutzeko, Udalak eta Eusko Ikaskuntzak lankidetzak akordio bat sinatu dute. 9.000 euroko aurrekontua dauka, eta lana 2007 eta 2008 urteen artean egingo da.

Proiektu honen emaitza Eusko Ikaskuntzaren 'Euskal Herriko Erdi Aroko Iturriak' deritzon bilduman argitaratuko da. Bilduma honetan bertan gure Artxibategiari dagozkion bi ale lehendik argitaratuta daude, 1186tik 1474ra bitarteko dokumentazioa lehen alean, eta 1480tik 1498ra bitartekoa bigarrean.



Udal Artxibategian dagoen akta baten kopia

Hondarribia Futbol Elkarteak hobekuntza ikastaroak antolatuko ditu

Uztailean izango da, eta bi txanda egongo dira

Uztailean zehar Hondarribia Futbol Elkarteak V. Futbol Hobekuntza Ikastaroak antolatu ditu, 6 eta 14 urteko gazteei begira. Hamar egunetako bi txanda egongo dira, eta mutil zein neskentzat izango dira.

Futbol jardunaldi hauetan, 1993 eta 2001. urteetan jaiotako haur eta gazteek hartuko dute parte. 1997 eta 2001 urteen bitartean jaiotako benjamin eta aurre-benjaminak kontsideratzen dira eta Lehen maila osatuko dute. Bitartean, 1993 eta 1996. urteetan jaio direnak, alebin eta infanti-lak dira, eta Bigarren maila osatuko dute. Gehienez, maila bakoitzeko 20 jokalarik egongo dira.

Bi txanda egongo dira uztailean. Lehena 2tik 13era izango da eta bigarrena 16tik 27ra. Goizeko 10etatik 12etara, jardunaldiak astelehenetik ostiralera izango dira.

Parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ekainaren 25a baino lehen 70 euro ordaintzea kontu zenbaki honetan: 2101 0039 19 0000208744 (Kutxa).



Teknikazio ikastaroak uztailean izango dira



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Udal eta Batzar Orokorretarako Hauteskundeak

12.980 hondarribiarrek dute bozkatzeko eskubidea datorren maiatzaren 27an

Pasa den ostiraleko Osoko Bilkurak datozen maiatzaren 27an ospatuko diren Udal eta Batzar Orokorretarako Hauteskundeetarako hautes- mahaietako kideak izendatzeko zozketa onartu egin zuen.

Orotara 12.980 hondarribiarrek izango dute botu eskubidea, eta horretarako zazpi hauteslekutan botatu ahal izango dute:

Mendelu, Puntala, Udaletxea, Saindua, Satarka, Soroeta eta Ama Guadalupekoa ikastetxea.

Hondarribiak bozkatzeko 19 mahai izango ditu, bakoitzak presidente bat eta bi bokal izango dituelarik. Kargu bakoitzerako bi ordezkodun daude, Osoko Bilkuran onartu zen moduan.

Hauek dira aurkezten diren zerrendak

Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ)

1. Aitor Kerejeta Cid jn.
 2. Juan Maria Altuna Muñoa jn.
 3. Maite Pelaez Arregi and.
 4. Arantzazu Ocio Larrañaga and.
 5. Gregorio Berrotaran Etxeberria jn.
 6. Maria Eufemia (Maiaia) Urrutia Gastesi and.
 7. Iñaki Diaz Casillas jn.
 8. Joseba Romero Oronoz jn.
 9. Itziar Sarasola Salaberria and.
 10. Edurne Etxeburu Egia and.
 11. Rosa Gomez Gonzalez and.
 12. Juanxo Villarreal Olazabal jn.
 13. Maider Olazábal Sarasola and.
 14. Juan Jose Susperregi Sorondo jn.
 15. Eugenio Elduayen Eizagirre jn.
 16. Marta Amunarriz Emazabel and.
 17. Borja Jáuregi Fuertes jn.
- Ordezkoak:**
1. Iñaki Guezala Oyarbide jn.
 2. Elena Uriá Aramburu and.
 3. Juan Sagarzazu Zuzaya jn.

Eusko Alkartasuna (EA)

1. Ion Elizalde Caballero jn.
 2. Xabier Tife Susperregi jn. (independiente).
 3. Isabel Olazábal Lekuberría and.
 4. Florentzio Arrieta Mendizábal jn.
 5. Birkide Elduayen Amunarriz and. (independiente).
 6. Karmelo Goikoetxea Etxeberria jn. (independiente).
 7. Juanxo Lapitz Tolosa jn. (independiente).
 8. Goretti Oliveri Martinez and.
 9. Nicasio Unsain Galarza jn.
 10. Izaskun Errazkin Iturria and. (independiente).
 11. Luis Naval Miguel jn. (independiente).
 12. Marian Velez Etxeberria and.
 13. Iker Oliveri Ruiz De Munain jn.
 14. Berta Oiarzabal Serrano and. (independiente).
 15. Ramon Kanpandegi Garmendia jn.
 16. Eider Bereau Goikoetxea and. (independiente).
 17. Jose Antonio Oronoz Alkain jn. (independiente).
- Ordezkoak:**
1. Nestor Basterretxea Arzadun jn.
 2. Ana Olaskoaga Susperregi and. (independiente).
 3. Juanxo Markez Gende jn. (independiente).

Eusko Abertzale Ekintza (EAE)

1. Miguel Maria Mariscal Balerdi jn.
 2. Miren Legorburu Galayeta and.
 3. Asier Sistiaga Segurado jn.
 4. Garbiñe Etxaburu Igiñiz and.
 5. Bernardino Emazabel Berrotaran jn.
 6. Leire Echaide Amorrortu and.
 7. Julen Goicoechea Piris jn.
 8. Ana Maria Aizpeolea Aldasoro and.
 9. Eñaut Labayen Zapirain jn.
 10. Margarita Estibaliz Hernández Rodríguez and.
 11. Ramon Murua Andueza jn.
 12. Idoia Otegui Aramburu and.
 13. Josu Miren Barandiaran Bengoetxea jn.
 14. Miren Ainhua Olaizola Aguinaga and.
 15. Aitor Orbegoza Amorrortu jn.
 16. Miren Gurutze Sagarzazu Ancisar and.
 17. Xabier Castrillon Revuelta jn.
- Ordezkoak:**
1. Maria Guadalupe Olaizola Elizazu and.
 2. Manuel Santos Mateo jn.
 3. Ainhara Obeso Ardaiz and.
 4. Maria Montserrat Fuente Saez and.

Aise
1971-1974

Aise Iruñean eta
orain **Hondarribian!**

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala
Juan Laborda 2, behe
20280 Hondarribia
Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92
E-mail: aisebidaso@euskalerrria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

PSE-EE (PSOE)

1. Maria Luisa Arijia Soutullo and.
2. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui jn.
3. Ramon Laborda Larzabal jn.
4. Coro Lopez De Briñas Ordax and.
5. Carmen Maura Amunategui and.
6. Jesús Corral Hernández jn.
7. Angel Andres Conde jn.
8. Begoña Arroyo Solorzano and.
9. Alicia Pino Cumplido and.
10. Ricardo Ramos Iriarte jn.
11. Ruth Maria Josefa Cerrillo Velez and.
12. Pedro Jose Olazábal Ortiz jn.
13. Avelino Vazquez Gonzalez jn.
14. Juncal Laborda Larzabal and.
15. Gerardo Sanz Pascua jn.
16. Purificación Chanca Alviz and.
17. Antonio Verde Recuero jn.

Herritarren Ekimena (ACHE)

1. Antonio Eloy Garcia Terrones jn.
2. Pascual L. Michelena Paliargues jn.
3. Maria Carmen Basilique Adan and.
4. Angel Echeveste Cuenca jn.
5. Beatriz Andres Bilbao and.
6. Jose Cruz Ruiz Villandiego jn.
7. Angel Illarramendi Larrañaga jn.
8. Koldobika Aingeru Sanchez Blanco jn.
9. Ainara Garcia Cuenca and.
10. Maria Isabel Verde Menacho and.
11. Juan Ramon Perez Torres jn.
12. Juan Maria Delpuerto Ustain jn.
13. Juana Urruzola Loinaz and.
14. Laura Herrero Marzo and.
15. Manuel Zubeldia Toledo jn.
16. Eladio Vidal Pazos jn.
17. Eusebia Perdiguero Sanz and.

Alderdi Popularra (PP)

1. Jose Manuel Lizarraga Dorda jn.
2. Laura Carmen Vaquero Alonso and.
3. Jose Antonio Diaz De Tuesta Diez jn.
4. Matilde Gonzalez Rodríguez and.
5. Manuel Rubias Carrera jn.
6. Rodrigo Jiménez Revuelta jn.
7. Alberto Olalquiaga Soriano jn.
8. Maria Amparo Tomas Monteagudo and.
9. Maria Del Carmen Bautista Delgado and.
10. Augusto Caro Santacruz jn.
11. Encarnación Lopez Puche and.
12. Patricio Aguilar Castro jn.
13. Maria Teresa Gomez Valiente and.
14. Jose Manuel Muñoz-Rojas De Alarcon jn.
15. Leonardo Lewin De Orozco jn.
16. Juana Imedio Puebla and.
17. Luis Jerónimo Gallardo Martinez jn.

Ordezkoak:

1. Alejandro Alcaina Aguilar jn.
2. Maria Cristina Fernández Zapata and.
3. Raul Fernández Auñon jn.
4. Cristina Gorostiza Cantarero and.

Ezker Batua-Berdeak eta Aralar (EB-B/A)

1. Maria Angeles Santos Prieto and.
2. Eñaut Elizegi Sarasola jn.
3. Amancio Paniego Gomez jn.
4. Garbiñe Darceles Tife and.
5. Ramon Rodriguez Goñi jn.
6. Mikel Aingeru Ibarondo Fernandez jn.
7. Jose Antonio Cabrera Mendez jn.
8. Veronica Garrido Corral and.
9. Rosa Sanchez Gonzalez and.
10. Andres Luis Justo Drumond jn.
11. Sonia Eremias Peña and.
12. Virginia Pozo Gonzalez and.
13. Sebastian Ramirez Morente jn.
14. Paulo Justo Drumond jn.
15. Victor Torrijos Cantero jn.
16. Iñaki Molina Cordero jn.
17. Josefina Goñi Arruabarrena and.

Maiatzaren 27an ospatuko diren Udal eta Batzar Orokorretako hauteskondeekin Hondarribian 12 urtez Alkate izan den Borja Jauregi agur esango zaio. Hiru legealdi agintean izan den Jauregi, EAJren zerrendan aurkeztean da, baina atzekaldeko postuetan. Lerro hauetatik zorianak eta zorte on aurrerantzean!

EXPERT**GEURIA****SUKALDEKO ALTZARIAK**

Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK

Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA**HONDARRIBIKO
GIMNASIOA**AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...**"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!**

Hondarribia Arraun Elkarte • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

GLORIA MINTXERO



Irundarra da eta ez da inongo elkarteko presidente, baina Irunen baino eza-gunagoa da Hondarribian, Zuloaga kalean makina bat urte pasa baititu. Alzaga autoeskolako administrari gisa aritu da lanean; orain aste gutxi, ordea, askoren amets den erretiroa hartu du eta, honenbestez, nekez ikusiko dugu hemendik aurrera bere lanean. Txori txiki batek esan digunez, kontu asko omen ditu Gloriak Hondarribiko jendearen, eta batez ere, berarekin gidabaimena aterata duten arrantzaleen inguruan kontatzeko. Horregatik, gustuko izango duzelakoan, hona Gloriaren bizipenak eta kontuak labur-labur.

Irunen eta Hondarribian 31 urte eman dituzu lanean, baina Hondarribian, zehazki, 23 urte. Hainbeste urteren buruan jende asko egingo zenuen lagun hemen, ezta?

Bai, jakina. Hemen denek ezagutzen naute, arrantza-leek, dendariek... Garai batean Hondarribian bazen Ugarte izeneko autoeskola bat, baina autoeskola itxi eta Madril aldera joan ziren. Ni hemen lanean hasi nintzenean jendeak ez ninduen ezagutzen eta askok Iruna joatea erabakitzen zuten, jendearen, eta batez ere, arrantzaleen artean ezagun egin nintzen arte.

Zergatik dituzu gogoan, hain justu, arrantzaleak?

Ontzietatik jaitsi eta hona etortzen zirenean sekulako iskanbila sortzen zutelako! Ero-ero eginda ibiltzen ziren; itsasotik etorri eta erabat zakar portatzen ziren. Horregatik, gidabaimena atera nahian autoeskolara etortzen zirenei laguntza dezente luzatu behar izaten zitzairen. Itsasoak ez du ordutegirik, eta lurrian zeudenean larunbat eta igandeak ere aprobetxatzen zituzten hona etorri eta testak egiteko. Oraindik ere gogoan dut nola itxi behar izaten nuen autoeskolako atea jaiegunez lanean ari nintzela inork ikus ez zezan! Zenbaite-


AXOLA

INMOBILIARIA AGENTZIA

Salmentak
erosketak eta
alokairuak

San Pedro,1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542



**RESTAURANTE
ASADOR**

TINERE

C/ MAYOR, 31
TEL. 943 64 35 00
HONDARRIBIA

tan ontzia goizaldera iristen zen eta handik ordu batzuetara azterketa egitera joan behar izaten zuten arrantzaleek. Erraz esaten da baina... Gogorra zen haien bizimodua.

Hortaz, arrantzale asko ezagutu duzu hemen...

Bai, mordoxka; gainera denek izengoitiren bat badute, Katxarrosenak esaterako. Hemendik pasa diren arrantzale asko zaharrak ziren; gidabaimena izateko irrikitan zegoen patroia asko pasa da hemendik. Normala zen bezala, askok liburuak aspaldi baztertu zituzten eta neronek ibili behar izaten nuen azalpenak ematen. Zenbat eta urte gehiago, orduan eta zailagoa egiten zitzaaien ikastea. Gogoan dut behin patroia batek gidabaimena atera eta nola ekarri zidan hegaluze kaxa bat. Gero, patroia gehiago ere etorri ziren atzetik gidabaimena ateratzeko asmoz.

Bitxikeriaren bat kontaiguzu, Gloria...

Ez dakit bitxikeria den, baina ez dut ahaztuko Sabrina abeslari italiarra -bere bularrak erakusteagatik hain ezaguna egin zena- Oiartzun aldera etorri zeneko eguna. Arrantzale askok piper egin zuten eta gero hona etorri zirenean, ene! Sabrina gora eta Sabrina behera. Gainera, xelebrea zen, baina nahikoa zen arrantzale batek autoeskolan izen ematea, atzetik gero beste lauzpabost ere etortzeko. Batek behin zera esan zidan, semaforo batean aurkitzen baninduen, azpian hartuko ninduela kotxearekin. Gauzak nola

diren, niri hori esan eta gero, azterketara aurkeztu eta ez zuen azterketa gainditu, hain justu semaforo batean oinezko bat ia-ia azpian hartu zuelako.



Ainara Elizondo

Baserritarrik ere etortzen al zen?

Bai, baserritarrik ere bazeuden, baina gehienak arrantzaleak ziren. Herriko jaien ondoren etorri eta otsailera arte egoten ziren nirekin, berriz ere itsasora joan behar izaten zuten arte. Gainera, batzuk oso-oso "zomorroak" ziren; idazten zutena inork ikus ez zezan estaltzen zuten papera. Batzuek edozer galdetu eta nik erantzuten nienean, gorri-gorri eginda jartzen ziren. Ni konfiantza ematen saiatzen nintzen, bestela ez baitzituzten galderak egiten eta horrela ikasten baitzuten gehien, galderak egingez, alegia.



Gloria, urte askotan bere etxe izan den autoeskolaren aurrean

Beno, Gloria, bukatzeko, erretiroa orain gutxi hartu duzula, pena emango dizu hemendik alde egiteak...

Bai, nola ez; hemen denek ezagutzen naute, botikakoek, kafetegikoek... Baina ez naiz aspertuko, izan ere, informatika ikasten hasi nahi dut, gimnasia egiten hasi eta euskara ikasteari ere ekingo diot, hartara nire bilobekin euskaraz behar bezala mintzatu ahal zateko.

 Gaxen okindegia • gozategia	 Gaxen kafetegia
San Pedro 49, bajo 20280 HONDARRIBIA Tel. 943 641 995	Zuloaga, 8 20280 HONDARRIBIA Tel. 943 111 656

 M.A.G. ASESORIA AGINAGALDE	GESTIÓN: CONTABLE, FISCAL, LABORAL * SEGUROS
GESTIOA: * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA ETA LANAREKIN LOTUTAKOA * ASEGURROAK	

Euskaldunon antzinako sustraiak (IV)



Martin Iturbe

Aurrekoetan sarbidea eman nion gaiari berriro ateak irekiz, antzinako euskaldunek bizitzari zioten begirapuntua aipatuz noa aurrerabidean. Lehen aipatu nuenez, E Capdevilaren eskutik nator oraingoan ere.

Izadiak emana izan dio edozein giza-talde eta herriri nahiko gai bizitzarekiko barne-begirada argitzeko, sakontzeko, bizitza horren esanahi sakona nola edo hala ulertzen saiatu ahal izateko.

Gurean, Izadiko elementuek harrigarritzko aberastasuna agertzen dute giza-izatearen ezkutuko esanahia nondik nora ibili izan den jakin ahal izateko.

e) ZUHAITZAK

Zuhaitzek ere lehen euskal gizonaren erlijio-pentsamoldeak agertzen dizkigute. Giza bizitzan ugari baino ugariago azaldu ohi diren alde bikoitzen sinbolu gertatzen da zuhaitza: ona-txarra, bizitza-heriotza, izan-ezagutu, ar-eme...

Horrela, badira zuhaitzak euskaldunek maitasun bereiziz maitatuak: haritza, pagoa, artea... eta badira zuhaitz madarikatuak: ZUHANDORRA

Aitortu beharra dut: landare madarikatuen artean hartua zen zuhandorra,-gazteleraz "CORNEJO"-, zer nolako landarea den ez dut inondik argitzerik izan. Nekazari, baserritar eta baso-gizonei galdetu diet, eta iñork ez dit argitu nere jakinmiña. Gehieneakoak haxe esan dit: Ibai edo erreka bazterretan hazten den sastraka antzeko zerbait dela.

Dena den, besterik ere bada, eta hona zuhaitz bedein-
katuen sailean aurkitzen duguna: "LIZARRA".

Zuhaitz hau, LIZARRA alegia, gure artean ez da bedein-
katzen. Berak du indarra gu eta gure etxeak gaitz guztie-
tatik babesteko. Horregatik, San Joan goizean, gure
baserrietako ate guztietan LIZARRABARRAK jartzen
dira, elorri zuriaren abarra alboan duela.

Eta azkenik, sakratuak eta onurakorrak diren zuhaitzak:
ELORRIA. Elorriari buruz aipatuko dudana haxe da:
GURE ARTEAN, ASPALDIDANIK, AmaBIRJIÑAREN
"AGERPEN" "AGERKUNDE" edo "AZALTZEAK" ugariak
eta bedetakadan ditugu. Gehien batean, elorri gaiñean
azaldu izan dira. Elorri zurian, noski.

Landaregintzan dabilzanentzat bereiztasun bixtxi bat
ere badu elorriak: "Beste landareki edo zuhaitz askoren
mentua onartzen duela, bere sailekoa ez bada ere. Nik
baserrian eskuratu nuen "Jakintzaren" alorrean, elorri-
enborkiari egokien datozkion mentu-txertoak, mispirare-
nak eta udarearenak dira.

Bizipen guzti hauen islada bezala, hor ditugu gureganai-
no iritsi diren lehen aipatutako ohitura batzuk: baserri
atarian lizarra landatzea tximistak kalterik egin ez
dezaion, edo elorri nahiz liza egurrez eginiko gurutzeak
ate leihoetan jartzea.

Aipatzekoa derizkiot, aldi berean, ereñozu edo "erramu-
abarrez" eginiko gurutzeak; barruti, zelai eta soroetan
nola jartzen ziren; hain zuzen, esola-muturrean gurutzea
itsasi, txapelaerantzi, eta, San Migel Aralarrekoruntz
begira, Kredoa errezatuz kokatzen zirenak.

Guzti honen atzetik gauza bera gordetzen zen: gure
aurrekoak gaitz eta edozein kaltetatik babesteko zuten
indar misteriozua.

(Jarraituko du)

Familiak behar dira **Saharako haurrak** etxeetan hartzeko

Hondarribiko Udalak, Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren bidez, deialdi bat burutu du uda honetan Saharako haurrak jasotzeko familiei luzatuta. "Oporrak Bakean" izeneko programa dela eta, uztailean eta abuztuan 8 urteik 12 urte bitarteko 8 neska-mutil saharar etorriko dira Hondarribira, eta familiak behar dira bere etxeetan jasotzeko.

Maiatzaren 10ean burututako prentsaurreko batean, Maite Pelaez Gizarte Zerbitzuetako eta Gazteria arloko zinegotziak esan zuenez, "beharrezkoa da familiek parte hartzea. Haurrak egoera kaxkarrean bizi dira han, eta gainera udan 50 gradutara heltzen dira Udako hilabete hauetan beren etxeetan hartuko dituzten familiekin oporrak igarotzeko aukera eskaini nahi zaie eta familia hauek konprometitzen dira neska-mutil horiei beren etxeetan ostatua, mantenua eta babesa ematera, halaber osasun zainketaz eta errehabilitazioaz ere arduratuko dira, baldin eta garai horretan horrelakoren beharrean gertatzen badira".

"Udalak" jarraitu zuen zinegotziak, "programa hau martxan jartzean, bere gain hartuko ditu neska-mutil horien bidaiartartelen gastua eta horiekin batera Saharatik etorriko den begiralearena. Era berean, Txingudi Sahararekin TADAMUN elkartearekin aisialdiko ekintzak antolatu eta osasun azterketak eta zainketak koordinatuko ditu Osakidetza-ekin; bestalde haur bakoitzari eta hemengo familiari laguntza eskaintzeaz gain haurraren jarraipena egingo da".



*Pablo Morales Tadamun Elkartearen presidentea eta
Maite Pelaez Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia*

Eskubian, iaz Hondarribira etorri ziren Saharako haurren irudia. Aurtengo uztaila eta abuzturako zortzi haur jasotzeko deialdia burutu da Gizarte Zerbitzuetatik. Edozertarako, informazio gehiago behar duenak 943 111291 telefonora deitu behar du.



XVIII. HERRI KANTA JAIALDIA OSPATU DA

Maiatzaren 20an ospatu zen hemezortzigarren aldiz jarraian Herri Kanta Jaialdia. Eguraldi txarra zela eta, Gipuzkoa plaza utzi eta Portuko Elizara joan behar izan zuten abeslari eta ikusle guztiek.

Aurten hamar talde igo ziren 'taulatura', Iñigo Salaberriak zuzendu zuen Zumardikoak izan delarik berritasuna. Jasotako txaloak ikusita, ondo egin zutela argi geratu zen.

Aipamen berezia egin behar diogu Lourdes Zubeldiari. Gai-xotasun larri bat igarota, lehen agerraldi publikoa egin zuen Zubeldiak berak hain maitea duen jaialdian. Ekitaldian zehar, bereak diren hiru abesti kantatu ziren gainera, eta une hunkigarriak bizi izan ziren.

Hortaz gain, beste hondarribiar baten letrak dituen abesti bat entzun ahal izan zen. Surbesta abesbatzak Prudentxio Lekuonak idatzitako '1955' abestia, gero Leticia Vergara zuzendariak moldatua. Argazki sorta honen ondoren irakurri dezakezue abestia osorik.



Xarmanta abesbatza; zuzendaria Pili Anuncibay.



Klink abesbatza; zuzendaria Jose Ignacio Lopez.



Surbesta abesbatza; zuzendaria Leticia Vergara.



Goxoki abesbatza; zuzendaria Carlos Lazkanotegi.



Zumardikoak abesbatza; zuzendaria Iñigo Salaberria.



Ohittur abesbatza; zuzendaria Nagore Iridoy.



Kasino Zaharra abesbatza; zuzendaria Juncal Gascon.



Olagarro abesbatza; zuzendaria Mikel Zuazabeitia.



Kardiñeruak abesbatza; zuzendaria Arantxa Lasa.

1.955



Amute-Kosta abesbatza; zuzendaria, Joxemari Etxaburu.

Eskubian, Surbestak abestu zuen "1955" abestia, Prudentxio Lekuonak idatzitakoa.

Mila bederatzirehun
berrogeita hamabostian
gertatutakoa kontatu
nahi dut abestian
Donibaneko Lohitzun
Benito Enparanen herria
harek eman baitzigun
arrantzatzeko fedia
zarbaiten beharrea
zegoen Hondarribia
arrai batere ez da
negua oso luzia

Donibaneko bi anaiak
Frantxiska dago parian
laister hondarbitarrak
zirela atzian
San Ramon eta San Pedro
joaki dire aurre-aurrian

Guadalupeko Ama
zihoan hor hubilian
higer eta natividad
kuadrilla denen txopian
Virgen del Mar zutela
estriborreko aldian

Berrogeita hamar urte
gertatu baitzen hau dena
gaur esaten omen dute
guztia joan dela
izugarria gertatzen
itsasoaren hondamena
arraiekin batera
arrantzal jendearena
nekea eta pena
ez gatoz kantatzera
barko haiei esker
egun badugu aukera

Udal Bulegoen eraikin berriaren egitura

Joan den apirilaren hasieratik Hondarribiko Udalak eraikin bat dauka atzealdean, eraikin berria, eder eta azken teknologiak jasotzen dituen. Orain arte hiritarrari eskaintzen zaion zerbitzua hobetzea da helburuetako bat.

Etxe berriak lau solairu ditu:

- Behealdean Gizarte Zerbitzuen departamentua dago.
- Lehen solairuan, Kontu-hartzailetza.
- Bigarrenean, Kultura, Kirola, Merkataritza, Turismo eta Gazteria departamentuak eta zinegotzia.
- Hirugarren solairuan aldiz, Kontratazio, Pertsonal eta Euskara Departamentuak daude.
- Azkenik, goialdeko solairuan, alderdi politikoen eta sindikatuen ordezkariak daude.

Kale Nagusiko eraikin historikoan, Alkatetza, Hirigintza eta Idazkaritza daude.



San Isidroko prozesioa ospatu zen Guadalupen



Baserritar ugari hartu zuen prozesioan


nekazari guztiei. Mezaren ondoren, hainbat urtetan Guadalupeko apaiza izan den Jose Etxaideri omenaldi txiki bat eskaini zitzaion.

Eguerdiko 14.30etan hasi zen Guadalupeko Kantinan bazkaria, eta ondoren bertsolariak izan ziren, baita herri kirol ugari ere, besteak beste aizkolari eta harrijasotzaileak.

Eskuineko irudian, San Isidroren irudia, prozesioaren hasiera

Hainbat ordutan euria egin ondoren, azkenean San Isidroko prozesioa hasi zenerako atertu egin zuen eta eguzkipean ospatu zen Guadalupeko Santutegiaren inguruan jende ugari bildu zuen prozesioak. San Isidro santuaren atzetik, Alfonso Pey Guadalupeko apaiza, Borja Jaurerri Alkatea, Aitor Kerejeta alkateordea, eta Florencio Arrieta, Isabel Olazabal, Maite Pelaez, Gregorio Berrotaran zinegotziak, baita fededun pila ere.

Santutegiaren atzealdean dagoen gurutzera heldu zenean prozesioa, 'Bai Doatsua'-ren doinupean, Alfonso Pey apaizak, lehen aldiz lurak bedeinkatu zituen eta zorte ona desiratu zien



Lekukoen arrantza

Hizki mutua deitzen zidaten, eta azken hilabete hauetan mutu gelditu naiz hainbat arrantzaleen testigantzak eta esperientziak entzunez: batetik, *Katxarros*, bestetik *Samartxial*, *Ttantz* ere zerbaite entzun dut, eta hainbat eta hainbat mote...

...Moteak? Ezizenez ezagutzen dute denek elkar Hondarribian, eta ezizen batzuen bidez ezagutu dut Hondarribiko kai zaharra. Izenak egiten ez dituzten pertsonak ezagutu ditut, izaera jatorrekoak, eta txiki eta ezdeus sentitu naiz: nor naiz ni? guztiaren gainetik hegan doan ainara bat eta arrastorik utzi gabe desagertzen eta agertzen dena?

Garratza da bizitza, gogor lan egitea tokatzen denean eta hori jaso dut agiri zahar batean: "arrantzaleak bizi behar badu, familiaren bizibidea ziurtatu behar badu, egunero lan egin behar du hutsik egin gabe".

Goxo hartu naute portu aldean agerturik, eta beren etxeko ateak ireki eta irribarre batez hartu, gainera: goxoa da mai-tasuna! Eta ni neure ahotsik atseginena jartzen saiatu

naiz, grabagailua eskuan, kon-tatu nahi zuenak hitz egin eta nik entzun nezan...hizkera indartsutik Hondarribiko zen-bait esamolde bildu ditut eta kantu leun baten modura eskerrak eman nahi dizkiot nire-kin pazientzia izan duten arrantzale erretiratuak eta laguntza eman didaten beste hainbat laguni. Kantu leun baten modura, eskerrak eman udaletxeko zenbait langileri eta Hondarribiko beste zenbaitzuei. Kantu leun baten modura, xuxurla egiten diot sorgin-haizeari eta leun uzten ditut liburuak liburutegi eta artxiboetan.

Eta ohartzerako heldu naiz kresala leun arnastera, ohartzerako ihes egin du ainara honek Onddarrbiko itsa-sertzetik beste norabait...esamoldeen airearekin hegan, esamoldeek esan didatena nirekin gelditzen da eta zuen-gandik bildu ditudan esamolde eta bertsoak zuekin gelditzen dira, argitara dezazuen eta hitzetik hortzera era-bili!



Ainara Maia Urroz
Euskal filologoa

*Kaiatik urrunduz
Gibelera zeharka so
Hondartzetik kanpo
Etorkizuna atzo*



Elkarriketatuak izan diren arrantza-leetako batzuk Kai Zaharrean



eukeni
optika

niretzat zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 805

Focus
DAILIES™

Ikusmen egokitze-
mota guztietarako



Ikusmenaz goza ezazu



NI
nire nire lentillak
betaurrekoak Focus DAILIES



CIBA
Vision

Hondarribia eta hauteskundeak Erdi Aroan



Koldo Ortega

Hauteskunde garaietan gauden honetan, gure herriaren historiari begiratzen diogun aldizkariaren atal hau ezin genuen gai egokiago bat hautatu. Gaur egun, jakin badakigu Udala nola osatzen den, Alkate, Alkateorde eta zinegotziak daudela, udal departamentu desberdinak eta bakoitzean lan egiten duten teknikariak.

Hala ere, hau ez da beti horrela izan. Lerro hauen bidez, Erdi Aroan gauzak nola antolatzen diren ikusi nahi dugu, gaineratik bada ere. Horretarako, Jose Luis Orella historialariak idatzitako 'Hondarribiaren historia goiz erdi aroan eta berant erdi aroan: sorreratik XIII. mendearen amaiera arte' lana, (Hondarribiko Historia, 49-107 orr.), artikuloa aztertu dugu.

Bertan irakur dezakegunez, Hondarribiak bazuen XIII. mendean kontzejuak biltzeko leku bat, non dorrea eta kartzela publikoa zeuden. Hiribildua harresiz inguratua zegoen eta gazteluan erregeek izendatutako alkaide bat zegoen. Hiribilduko kontzejuak probestu bat, foruko bi alkate eta zinpekoak zituen. Azken hauen karguak txandakakoak ziren, eta ez biziartekoak. Dena den, hiriko oligarkia txikiko kideak soilik izan zitezkeen kargu horietan.

Kargu horiez gain, beste hamabi "gizon on" zeuden, urtero hautatzen zirenak. Kontzeju itxia (bi alkate, zortzi zinpeko, eskribau leial bat eta otsein burua) oligarkiako familiako

kideen artean osatzen zuten. Hiribilduko gobernuea oligarkia burgesaren esku zegoen.

Probestua Erregearen ordezkari zen hiribilduan, justizia zibila eta kriminala ezartzen baitzuen. Kontzeju itxiko burua zen, biziartean gainera.



Dorrea Udalaren egoitza izan zen garai batean Hondarribian

Justizia egitea aldiz Foruko Alkateen esku zegoen. Hiribilduko oligarkek aukeratzen zituzten. Zinpekoek ordeza, oligarkiaren interesak ordezkatzeko zituzten. Eskribau leialak kontzejuaren batzarretan erabakitakoa liburu batetan idatzten zuen eta beti Alkatearen ondoren zegoen. Maiordomo edo diruzainak hiribilduko kontabilitatea eramaten zuen.

Hauteskunde prozedura oso zehaztuta zuten, hiriko oligarkiak nahi zituen gizonak aukeratzeko ziurtasun handiagoa izatearren. Sartzen ziren ofizialek kontuak eskatzen zizkieten irteten zirenei, pisuak eta neurriak berrikusten zituzten, eta eskribauari ordenantzak eskatzen zizkieten.

Historiak aurrera egin ahal du eta udal administrazioak baita. Informazio honetan sakondu nahi duenak, aukera bikaina du Hondarribiko Historia izeneko liburua. Udalak 2003ko Hondarribia 800 ospakizunen inguruan argitaratu zuen liburuetako bat da.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA



298 ARRANTZALE DAUDE HONDARRIBIAN

Pasa den alean hasi ginen Hondarribian hain garrantzitsua den, eta azken aldiotan ahaztua geneukan arrantzaren munduari errepaso txiki bat ematen. Orduan, Done Pedro Itsas Gizonen Kofradian dauden itsasontzi kopurua eta

bakoitzaren patroia zehaztu genuen. Oraingo honetan, bakoitzak daukan arrantza kopurua zehazten dizuegu. Ia 300 dira, behekaldean ikus dezakezuen grafikoan banan-bana dauzkazue kopuruak.

Ontzi txikiak

Itsasontzia	Marinelak
1. AITA RAMON	5
2. ARANTZAZUKO IZARRA	6
3. ARTXANDA EDER	2
4. BERRIZ AMATXO	6
5. GURE AMA MARTINA	5
6. GURE ITXAROPENA	6
7. MARIÑEL	5
8. NUEVO ROBER	6
DENETARA	41

ARRANTZALE KOFRADIAN APIRILEAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (Trachurus trachurus): 13.025,20 kilo

Sardina (Sardina pilchardus): 60.965,00 kilo

Berdela (Scomber scombrus): 1.164.889,90 kilo

Dorada edo Urraburu (Sparus aurata): 6,10 kilo.

Boga (Boops boops): 1.248,40 kilo.

Zapatari (Gerris): 44,60 kilo

Makarela (Scomber japonicus): 8.990,60 kilo.

Korrokoia (Chelon Labrosus): 31,10 kilo.

(Fermin Olaskoagak jasotako datuak)

Karrerako ontziak

Itsasontziaren izena	Marinelak
1. AITA FRAXKU	2
2. ARRANTZALE	16
3. ARRILLAGA	18
4. ARDORAN	9
5. ATTONA DOMINGO	16
6. BERRIZ MATUTINA	14
7. BERRIZ SAN FRANCISCO	4
8. DIOS TE SALVE	12
9. GUADALUPEKO AMA	15
10. GURE AMUITZ	16
11. ITSAS EDER	16
12. ITSAS LAGUNAK	14
13. KERMANTXO	3
14. KUKU ARRI	15
15. LUIS BARRANKO	14
16. NVO. HORIZONTE ABIERTO	13
17. PITTAR	16
18. SAN FERMIN BERRIA	14
19. TUKU TUKU	16
20. TXINGUDI	14
DENETARA	257

La **bacaladera** S.A.U.

Pasaia Saladc

Pol.n.Chumarra - Escorza - 20300 Irun

Telf: 943 63 90 33 Fax: 943 63 06 70 www.bacaladera.com



Euskarazko Literatur Tailerra sendotzen doa

*Hilean bitan biltzen da, ostegunez
15:30etatik 17:00etara*



*Euskarazko Literatura tailerra
Zuloaga Etxean elkartzen da.*

2006-2007 kurtsoan hasi da lehen aldiz Euskarazko Literatur Tailerra Hondarribia. Irakurtzea maite duen orok hamabostean behin du hitzordua Zuloaga Etxea. Gaztelerazko bi talde osatu dira eta euskarazko bat, bi ostegunetik behin elkartzen dena. Literatur tailerren arduraduna Maite Gonzalez da, eta berak eman digu denaren berri.

Noiztik hasi da euskarazko taldea lanean?

2006ko udazkenean hasi ginen, eta ekainean amaituko dugu lehen denboraldia. Erderazko taldea 2005ean hasi genuen; Hondarribiko Udalak euskarako talde bat osatzeko interesa erakutsi zuen, eta deialdia burutu ondoren, taldea osatu dugu eta oso sorpresa atseginak izan ditugu.

Zer nolako sorpresak dira horiek?

Jende euskalduna etorri zen hasieratik, baina euskarazko liburuak irakurtzeko ohiturarik ez zuena. Albisteak irakurtzen zituen, baina ez liburu edo eleberriak. Euskaraz

irakurtzeko ohitura dutenekin elkartu dira eta oso talde ona osatu dute.

Nolakoa da lan prozedura?

Bi astetik behin elkartzen gara, ostegunetan. Bakoitzak esandako liburu bere etxean irakurtzen du, eta gero, denon artean aztertu egiten dugu, zer nolako sentsazioa sortu dion bakoitzari liburuak. Liburuak sortutako bizipenak taldean azaltzen dira. Liburuak gainera Udal Liburutegiak oparitzen die partehartzaileei. Eskertzekoa da Udaleko Kultura Sailak liburu oparitzea, gai honetan interesa daukan seinale da.

RESTAURANTE

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Paseo Ramón Iribarren, nueva lonja - 20280 HONDARRIBIA
Telf.: 943 64 42 12

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etkez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

Nola hautatzen dira liburuak?

Liburuak aukeratzea nire lana izaten da. Bi irizpide jarraitzen ditut. Alde batetik, garai bateko liburuak aukeratzen ditut, 1960 ingurukoak, euskal literaturan sakontzen saiatzen naiz eta. Hortaz gain, gaurko liburuak hautatzen ditut, literatura modernoaren adibideak. Iraganeko eta egungo literatura uztartzen saiatzen naiz. Aldez aurretik, sarreratxo edo hurbilpen bat egiten dut, autore, liburuaren... inguruan eta gero liburua irakurtzen da. Adibidez, Salvador Zapiain 'Ataño'ren "Txantxangorri" irakurri dugu, baita ere "Nire pausoak" Pepita Iriondok idatzitakoa, eta berriagoa den Pello Lizarralderen "Sargoriak", Joxean Muñozen "Bizia lo" ere irakurri ditugu.

Ze ondorio ateratzen duzu tailer honetatik?

Argi daukat irakurle bakoitzak liburuaren irakurketa

pertsonala egiten duela. Irakurle guztiak desberdinak dira. Bakoitzak bere esperientzia gainontzekoei kontatzea, eta era berean, besteena entzutea oso aberasgarria da. Interaktibitate horrek plazer handia ematen du, eta oso gomendagarria da.

Zinearekin ere erlazioa mantentzen da, ezta?

Horrela da bai, baina oraindik bakarrik gaztelerako taldeetan. Osagarri bezala, zinean egiten diren pelikulak ikusten ditugu, baldin eta filme hori liburu batean oinarritu bada. Guk liburu hori irakurtzen dugu eta gero aztertzen dugu zine zuzendariak liburu nola interpretatu duen, eta zer nolako ikuspegia ematen dion. Oso interesgarria izaten da. Nire asmoa, noizbait euskarako taldearekin egitea da, ikusiko dugu nola egin.

Maite Gonzalez Esnal (Donostia, 1943)
Euskal idazlea, haur eta gazte literaturan
hainbat obra publikatu ditu:

- Bertan ikusia* (1984, Erein)
- Mari Marietta* (1997, Alberdania)
- Lapitz baten ibilerak* (1997, Erein)
- Maidarren taupada-bilduma* (2002, Alberdania)



Maite Gonzalez, Literatur Tailerraren arduraduna

Datorren kurtsoan euskal literatu tailera jarraitzeko asmoa dago.
Interesaturik daudenak, udal liburutegira jo dezakete.

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

SATARKA B MAILA**2.SARIA****...BIZITZA ETA SENTIMENTUAK**

Ana Lupe Iridoi Amunarriz

... Bizitza aurrera doan ahala...

Luzea da bidea..
Zer aurkituko beste aldean?
Inork ez daki..
Ez daukagu erantzunik.

Jaiotzea,
milaka esanahi,
alaitasuna, jakinmina..
baina aldi berean
malkoak eta samina.

Baina, zer aurkituko beste aldean?
Inork ez daki..
Ez daukagu erantzunik.

Gaztetasuna eta oparotasuna,
guztiongan maitasuna
eta tartean gorrotoa.
Aukerak dira hain ugari..
hauen artean nola erabaki?
Baina, zer aurkituko beste aldean?
Inork ez daki..
Ez daukagu erantzunik.

Denboraren iragana,
urteak aurrera,
ximeltzen goaz.
Ez dago eskubiderik..
Egindako guztiak alda ezin..

HERIOTZA,


Hau dago guztiarentzako
erantzuna.

HAIZEA

Haizea, gogorra
Haizea, gaiztoa
Haizea, garbia
Haizea, goxoa
Haizea, ederra
Hala nahiko nuke zu izatea..
haizea bezala,
azkar dijoana
leku batetik bestera,
mundu osoari esanez
zure maitea ni naizela..
eta nire maitea zu zarela.

SENTIMENDU NAHASIAK


Nire bihotza ixilik dagoenean,
nire barnea negarrez dago.
Nire pentsaera lasai dagoenean
nire barnea hutsik dago.
Baina nire bihotza negarrez entzuten
denean
nire barnea beterik dago..
maitasuna hain hutsa eta hain bete..
zein zaila zaren..
maitasuna.



kai zahar

kai zahar
pub
almirante alonso, 12

truck
diskoteka
foru kalea, 13



kaialde

jatetxea • restaurante
erretegia • asador
itsasargi 8 • 20280 • hondarribia
tel.fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es



Zer dira tofu eta seitan izeneko elikagaiak?

Bizimoduaren aldaketek (famiaren egitura berriek, lan moduaren aldaketek, eroste ohitura berriek, aisialdi mota berriek) elikatze ohituretan eragiten ari diren aldaketa handien aurrean, elikatze ohitura osasuntsuen eta ez hain osasuntsuek inguruan bi kontzeptu berri aipatuko ditugu gaurkoan.

Zehazki, azken honek eskaintzen dituen ekarpenei buruz hitz egin zuen, hala nola tofu-a edo soiazko gaztanbera eta seitan-a edo garizko glutena bezalako produktuak aipatuz. Biak ala biak gure mahaian erabilgarritasun handia eduki lezaketen landare proteinak omen dituzte.

Tofu delakoa, sojatik sortutako produktua dugu eta Seitan delakoa aldiz, zerealetik datorrena, gero eta gehiago entzungo ditugun kontzeptuak dira. Haragia eta bere deribatuek jan nahi ez baditugu, aipatutako bi produktuetan jarri behar dugu gure begirada, bi proteina begetal osatuak baitira, osasuna eta oreka emango dizkigutenak elikadura aldetik.



Proteina begetal indartsuak izateaz gain, grasa aldetik oso pobreak dira, kaloria aldetik oso baxuak, mineral aldetik indar handia dute, adibidez magnesio eta kaltzioa, eta digestio aldetik gauzak asko errazten dituzte.

Informazio gehiago behar izanez gero, www.natursoy.com webgunean begiratu dezakezu, edota zure bio denda ekologikoan galdetu, merezi du eta.



Ofertas Eskaintzak

- LIMA Hur/almendra esnea 1 l: 3,35 €
6+1 dohainik eta 10+2 dohainik
 - SANITURI soja esnea 1 l: 1,90 €
2+1 dohainik eta 12+8 dohainik
 - LIMA botila natural arroz esnea 1 l: 2,30 €
6 +1 dohainik eta 10 +2 dohainik
 - LIMA banilla- original arroza esnea: 2,65 €
5 +1 dohainik eta 10 + 2 gratis
 - MOLEN sagar hojaldre 200gr: 3,70 €
2+1 dohainik
 - SHIITAKE pate begetala 125 gr: 3,70 €
1+1 dohainik
 - BISILUR azukrarik gabeko fruitu zukuak:
2,95 € - 2+1 dohainik
- .Arreta pertsonala


EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



EZ DADILA EGUZKIA SARTU


Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramane zizutzen hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina

baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariek, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriez, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europan barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIA ETA IRUNGO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditik aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntz ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeinetan ez agertzea. Era berean, hizkerok euskalkien sailkapenean dute kokaguneari buruzko argibideak ematea



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituenak. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiagutietatik frankismoa arte. Horretarako 15

historialariko taldearen lankidetzak izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidaragarrtasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebeekin eta aitonarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona

asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorak tirata, edo suaren garrantzia, suak berotatzen ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerrian dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elozegi, Jose

Ramon Gebara eta Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindariak buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzoz-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

San Pedro 12 - HONDARRIBIA

Telf: 943 64 25 25



Maiatzean, zer?

6 IKASKETA BIDAIEK ZOKKETA!!!!

Gazte-txartelarekin aurten 6 ikasketa bidai zozketatzen dituztela ba al dakizu? Klase osorako bidaia debalde irten al dakizueke! Nola ikusten duzu?

Ekainaren 15era arte duzue eskaerak bidaltzeko.

Zuen bidaia aurten egin egin baduzue ere, zozketan parte hartzeko aukera duzue.

Informa zaitez Gazteaukeran:

www.gazteaukera.euskadi.net

GIPUZKOAKO ASTIALDI TALDEEN UDAKO EKINTZAK 2007

Udalekuetan plazarik gabe gertu bazara edo epea pasa baldin bazazu, oraindik beste aukera bat duzu udan primeran pasatzeko.

Natura gustokoa baduzu, hau da zure udako ekintza!

Gogoratu,
www.gipuzkoagazteria.net/uda web orrian ere udalekuak, udaleku irekiak eta auzolandegiak bildu ditugula...

HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERRIAN

Informazioa eta aholkularitza, Gipuzkoako agentziak eta beste agentzien zerrenda lortu dugu.

Atzerrira hizkuntza bat ikastera joateko ideia baduzu, pasa zaitez bulegotik eta ikusi non eskaintzen dituzten horrelako ikastaroak.



Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

RAFAEL
TABERNA · BAR



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Noizkoa da gaztelu hau?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Martxoko alean jarritako galderari ia 50 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Ibai Argote Garcia**. Berak esan bezala, irudi hartan agertzen den parajea, Guadalupe inguruan dago, Oiamungo gainetik oso hurbil. Bigarren saria jaso duena, eta beraz, liburu-sorta baten garailea, **Juan Jose Arestin Arizmendi** da.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Herriko toki berezi batean dagoen eraikin baten inguruan galdetzen dizuegu. Guztiok badakigu non dagoen etxe hori, handik askotan igarotakoak gara eta. Hala ere, noizkoa den galdetzen dizuegu. Ez duzue zertan urte zehatza eman behar, baina bai mendea. Horretarako, Hondarribiko historiari buruzko liburuak begiratzeko aukera duzue, edota internet sarean begiratu.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera, ekainaren 12a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.

Gosariak
Eguneko menuak:
4 sarrerako
4 bigarren platera
Afaltzeko plater konbinatuak

C/ San Pedro ,34
Telf. 943 645 597
20280 HONDARRIBIA

eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
eguneroko plater berriak
gazez, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
20280 hondarribia

Javier Ugarte plazaren irudi zahar bat



Hondarribiaren historiaren lekuko diren irudiak argitaratzen ditugun atalera iritsi gara berriz. Udal Artxibategiak daukan altxor haundiari etekina ateratzea da atal honen helburuetako bat, baina hilero ez da zertan argazki berdinak atera behar.

Oraingo honetan, Hondarribia 800-en ospakizunen inguruan Lankide Aurrezkiak eta Udalak argitaratu zuten liburura jo dugu irudi bila. 163. orrialdean topatu dugu argazki eder hau. Javier Ugarte plaza da, herrian "Jardincillos" bezala ezagutzen dena.

Historia apur bat eginda, esan 1907ko uztailaren 6ko Udal Bilkurak Javier Ugarte Hondarribiko Seme Kuttun izendatu zuela, 'hiri hau goratzeko eta oparoa izateko egindako ahalegin eskuzabal eta goresgarriak eskertzeko'.

Ugarte Bartzelonan jaio zen eta Madrilen bizi. Abokatu eta politikari bikaina, Elkartea Geografikoa-ren presidentea, Grazia eta Justizia ministroa, Gobernazio eta Sustapen ministroa izan zen. Urte askotan oporretan etorri zen Hondarribira. Hiriko zenbait gai garrantzitsu kudeatu zituen, besteak beste, kai berria egiteko lanak, karga besoa handitzeko lana eta hobekuntza lanak.

Era honetako argazkiak dituzuenok eta Hondarribia aldizkarian argitaratzea nahi duzuenok, Udal Euskara Batzordera eramatea besterik ez duzue.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



arroka berri
r e s t a u r a n t e

Higer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com



Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

Apirila2007

JAIOTZAK

4an: EKHIÑE Armezaga Oporto, Irungo Iñaki eta Hondarribiko Maria Begoñaren alaba.

4an: IRATI Manterola Garate, Irungo Juan Jose eta Tolosa-ko Maria del Carmenen alaba.

7an: ODEI Bollain Saez, Hondarribiko Iosu eta Irungo Ainaren semea.

10ean: IÑIGO EZEQUIEL Melendez Borja, Chimbote Aukasli-ko (Peru) Angel Constante eta Atalaya Huecho-ko (Peru) Victoria Eugeniaren semea.

12an: LUCIA Iraola Paniaga, Hondarribiko Igor eta Irungo Arantzazuren alaba.

13an: IKER Enparan Goikoetxea, Hondarribiko Joseba eta Hondarribiko Amaiaren semea.

13an: LAIA Goikoetxea Salaberria, Irungo Xabier eta Irungo Estibalitzen alaba.

14an: NEREA Moreno Sanz, Cadizko Miguel Maria eta Berako Idoiaren alaba.

14an: ANANE Fernandez Iriberry, Madrileko Daniel eta Hondarribiko Olatzen alaba.

22an: MIKEL Lopetegi Rigüero, Donostiako Jose Joaquin eta La Coronada-ko (Badajoz) Araceliren semea.

24an: MAIALEN Zeberio Etxebeste, Hondarribiko Jesus Maria eta Irungo Miren Josuneren alaba.

25ean: MANEX Zamora Etxebeste, Hondarribiko Joxe Mari eta Irungo Iratxeren semea.

25ean: JUAN Portu Matheu, Hondarribiko Jose Ramon eta Hondarribiko Susanaren semea.

28an: PAULA Lekuona Manterola, Hondarribiko Jesus Maria eta Irungo Maria Itziarren alaba.



EZKONTZAK

14an: CARLOS Muñoz Montes, Eskoriatzakoa, eta **ICIAR Garrosa Garcia**, Hondarribikoa.

21ean: JULIO Albalad Gimeno, Zaragozakoa, eta **MAYI Barbeira Alvarez**, Irungoa.

21ean: ALVARO Sanz Garcia, Segoviakoa, eta **LORENA Fernandez de Barrena Garcia**, Irungoa.

27an: JESUS Sanchez Lizarraga, Cizurkoa (Nafarroa), eta **MARTA Aseginolaza Lasuen**, Bergarakoa.

28an: JOSE Lluçia Gil, Arcos de la Frontera-koa (Cadiz), eta **SAIOA Arza Arretxea**, Donostiakoa.

28an: MOUNIR Bensmahi, Casablancakoa (Marruecos), eta **ASMAE Saidi Melloud Mesfioni**, Tangerkoa.

28an: ASIER Leiza Idiazabal, Donostiakoa, eta **ARGIÑE Karrera Susperregi**, Hondarribikoa.

28an: URKO Jauregi Llanillo, Hondarribikoa, eta **OLATZ Elizondo Iriondo**, Durangokoa.

28an: XABIER Lasalde Galarza, Irungoa, eta **MARIA ESTHER Hernandez Ballesterro**, Irungoa.

28an: RUBEN Elizetxea Imaz, Hondarribikoa, eta **EIDER Ibarguen Mitxelena**, Irungoa.

28an: DAVID Gomez Jimenez, Irungoa, eta **MARIA ISABEL Barahona Fernandez**, Hondarribikoa.

28an: IMANOL Narbarte Etxebeste, Hondarribikoa, eta **AINHOA Oronoz Sagarzazu**, Hondarribikoa.



HERIOTZAK

3an: MARIA MILAGROS Basabe Garcia, Bilbokoa, 83 urte, Itsasargi kalean.

11n: JOSE ANGEL Alza Arretxe, Hondarribikoa, 63 urte, Bernat Etxepare kalean.

11n: ANICETO Berroa Etxeberria, Hondarribikoa, 78 urte, kale Nagusian.

19an: PILAR de Marcos Burgos, Fuenmayor-koa (La Rioja), 91 urte, Puntalean.

20an: JAVIER Lazkanotegi Ugarte, Hondarribikoa, 93 urte, San Gabriel egoitzan.

24an: MARIA MAGDALENA Berra Yarza, Hondarribikoa, 90 urte, Nabarrenea baserrian.

25ean: ISABEL Rodriguez Gomez, Donostiakoa, 85 urte, Uria harresian.

26an: FRANCISCO Etxenike Etxebeste, Hondarribikoa, 87 urte, Hendaian.



APIRILAKO EGURALDIAREN DATUAK.
(Hondarribiko aireportutik jasoak).

Temperaturarik gorena:	27,8° C, hilaren 24an.
Temperaturarik beherena:	3,7° C, hilaren 5ean.
Bataz besteko tenperatura:	14,3° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 80.
Euri-litroen kopurua:	95,7 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 13an 30,1 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 27ko 19,00tan, 25,2 litro.
Egun euritsuak:	19 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak	egun bat
Ekaitz egunak	4 egun
Behe-laino egunak:	5 egun
Ihintz egunak:	9 egun
Eguzki kopurua:	150,9 ordu
Bataz besteko presioa:	1017,1 milibar
Presiorik gorena:	1025,0 milibar, hilaren 16an
Presiorik beherena:	1008,2 milibar, hilaren 30ean
Haizea >55 Km/ord.	1 egun
Haizerik indartsuena:	hilaren 27ko 18,50etan, 59 Km/ord.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK APIRILEAN

Altak:Jaiotzak: 14, eta kanpotik etorriak: 57

Bajak:Hildakoak: 8, eta herritik joanak: 63

Biztanle kopuru orokorra: 16.415 bizilagun.

APIRILEKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 272 euskaraz, 1019 gaztelaniaz eta 20 bestelakoak. Guztira: 1311 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 345 euskaraz, 86 gaztelaniaz eta 3 bestelakoak. Guztira: 437 liburu.

Bazkide berriak: 9 gizon eta 10 emakume. Horietatik 10 heldu eta 6 haur. Guztira 19.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

*Euskeraz:*KNISTER. - Kika supersorgina.- Gero.

*Gaztelaniaz:*YAKAYA, Natsuki. - Fruits Baskets.

Helduak:

*Euskeraz:*IRIGOIEN, Joan Mari.-Babilonia.

*Gaztelaniaz:*FALCONES, Ildefonso.- La catedral del mar.-Grijalbo.

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18

Tel.: 943 64 17 65 - 20280 HONDARRIBIA





URTE
25
ANOS

Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1982 - 2007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com

Argazkia: "Argazkiak, Hondarribia atzo"
Jose Maria Castillo

FUENTERRABIA. - Paseo del Faro



www.doble-a.com



Amute 8 - beheka C Hondarribia
Telf.: 943 667 003

doble A PROTECCION SOLAR

Kortinak
Oihalak
Margo-papera
Jardineko altzariak